

baleike

asfalto azpian...

baratza



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Azalaren argazkia

Ines Aseginolaza

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
orain hamar urte	7
ze berri	8
elkarrizketa xabier aranguren	13
gure zumai zarra anjel osa arrizabalaga	20
hezkuntza institutua	25
euskara txinparta	27
kultura musika	31
zine forum	33
agenda	34



Zumaiarrak gortzen

GORTU blog berria

Eskalada zaleek badute bloga
www.baleike.com/blogak/gortu
helbidean. Eskalatzea gustukoa
baduzu (edo ez), badakizu
nora jo.

BALEIKERen bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:30etik 18:30era



Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



Blog, blog, blog...

Azkenaldian behin eta berriz entzun dugun hitza izan da blog, bai Interneten eta Internet-etik kanpo ere. Google-en "blog" hitza bilatuz gero, bi milioitik gora emaitza ematen ditu! Horrela bilatu bai, baina aurkitu ez dakit zerbait aurkitzen lagunduko digun! Oso ezaguna dela, behintzat, ezin ukatu!

Blogaren definizio bat ematen hasiz gero, ez da erraza definizio labur eta argi bat ematea, hala ere topatu dut bat arrunt sinplea: "Blog bat anotazio, istorio edo artikulua publikoak idazten diren Interneteko web gune bat da". Hau da, gutxi gorabehera bakoitzak sudur puntan jartzen zaion hori Interneten beste guztien esku jartzeko balio duen plataforma da blog bat.

Euskal Herrian sekulako arrakasta izaten ari dira blogak eta jada euskal blogosferaz hitz egiten da. Seguru asko lehenengoak Eibar.org elkarteak izango ziren, eta atzetik etorri zitzaizkion Goiena.net eta Uztarria.com. Hala ere, Blogari.net izan da eztanda eragin duen faktore nagusietako bat, bertan edonork (eta inori baimena eskatu edo inori ongi erori beharrik izan gabe) ireki dezake bere leihotxo Interneten bere ahotsa (hitzak, hobeto esanda) zabaltzeko asmoz. Egun, ia 1.000 erabiltzaile ditu blog plataforma honek.

Baleike-k ere egina du bere ekarpena euskal blogosferara eta jada bertan daude presente piraguistak, zikloturistak, eskalatzaile jurasiko batzuk, epiolatarrak... Batzuek eduki gehiago sartzen dute beste batzuek baino, baina, tira, blogean ez dago araurik maiztasuna jartzen duenik. Nire gusturako, herriko pertsona esanguratsuen blogen falta sumatzen dut, kultura mundukoak, kirol mundukoak, kazetariak, enpresa munduko jendea... Izan ere, blog bat edozeinek jarri baitetzake! Jende asko dago hortik zehar bere bizipenak dotore asko kontatuko lituzkeena eta irakurtzeko amorratzen daudenak ere bai; nik, behintzat, irakurtzen ditudanetatik beti ikasten dut zerbait. Gainera, blog bateko berriak irakurtzeak ez nau aspertzen, normalean esan beharrekoa esateko ez direlako Elorrixatik Sanmielera bueltaka ibiltzen.

Aurrez aipatu dudana bezala, blog bat ireki eta bertan edukiak argitaratzeko ez da informatikan jakitun izan beharrik, gogoia eta zer esana izatea dira beharrezko osagaiak. Amaitu da informatikarekiko dependentzia Internet-en, gora blogak!

Blog, blog, blog...



Ibon Aizpurua

dani



Gonzalo quiere macarrones



xa2

Zalantza larriak izan ditut. Hainbat gai nituen esku artean, eta ezin asmatu zertaz idatzi. Lehen aukera politikari buruz jardutea zen. Zehazki esanda, Zumaiaiko azken udalbatzari buruz. Alkateak deituta, igande eguerdiko 12:00etan egin genuen udalbatzarra. Bai, ondo irakurri duzue: igande eguerdia. Esaldi

amaigabeekin edozer justifika daiteke, baita entzulea zorabiatu ere. Baina udalbatzarra modu eta ordu horretan deitzeak ez zeukan zentzurik. Ez dakit nola definitu: umekeria, egoskorkeria, petralkeria edo boterearen erotika. Zuek aukeratu. Nik, bitartean, oposizioari beste kalabaza bat jarriko diot. PSE-EE alderdiko zinegotziak bakarrik agertu ziren, aldeko botoa ematera. Non zegoen EA? Eta Izustarri? Boikota egitea oihartzunik ez duen erosokeria delakoan nago. Joan bertara, eta txanda dagokizuenen, salatu. Baina serio xamarra iruditu zait nire estilorako. Orduan, bigarren gai bat bururatu zait, arinagoa, erosoagoa. Nik ere, oposizioa bezala: bertan goxo. Aspaldi jorratu nahi nuena, zera da: Goenkale! Aitortzen dut, hasieran jolas soil bat zen, eta bukaerarako droga bilakatu da. Nork eman die 180 graduko bira gidoi horiei? Oraitxe ikusi dut: Gaizka itzuli da! Hainbeste urte eta gero. Profeta, nola ez, Isaias da. Noizean behingo maitaleekin bezala ibiltzen naiz Goenkalerekin. Ikusten ez dudanean, ez naiz gogoratzen. Baina, gaueko ordu horietan

harrapatzen nauenean, bere besoetan erortzen naiz, ziplo, eta saioa bukatu arte irauten dut begira-begira. Telesail bezala, txarra da. Badakit. Baina, batzuetan, kutrea bere horretan, xarmangarria izaten da. Portzieto, azkenean, eta bueltan-bueltan ibilita, zitalak ziruditen ertzainak onak dira. Horregatik pentsatu dut Goenkalez gehiago ez jardutea.

Hondartzaz orduan. Hasi da denboraldia. Kostako herriak, dagoeneko eguzkitako krema usaina hartuta daude. Badakit pixkat purista dela, baina ekaineko lehen asteburuan erdaldunez beteta zegoen hondartza. Pentsa nola egongo den uda betean. Turistaz gainezka. Batzuek su-etena eman dutelako, guk turistei gerra deklaratzeko eskubiderik ez dugu galdu, ezta? Bestela, gaizki ohituko dira, eta ez da komeni Turismo bulegoko estatistikak gehiegi gizentzen uztea. Gainera, turisten espeziea igandetako txomingeroen faunarekin nahasten denean... wazemank! Bat: ba al dago gauza nabarmenagorik? Hondartza guztia konturatzen da noiz etortzen diren, nora doazen, zertan dabilzan... Bi: bolumena. Zergatik hitz egiten dute marruaka? Hiru: hozkailua. Hondartza eta etxeko sukaldea ez dira berdinak. Guk badakigu, baina beraiek ez. Hasi txakarekin egindako pintxoekin, makarroi platerkadak, patata tortilak fianbreretan,... eta aizue, atzo sekula ikusi ez nuena: flanak!! Cocktail arriskutsua parranda ondoreneko siesta egiteko. Atzo, familia turista-txominger batek kirioak irakiten jarri zizkidan. Hango zarata eta hondarra harrotzea. Jatorduan baino gehiago bingo gastronomikoa ematen zuen hark:

—¿Quien quiere macarrones? ¡Macarrroones!

—¿Txumari quiere macarrones? ¡No quiere Macarrones!

—Aveerr, macarrones!?

—¿Gonzalo? Bien! Gonzalo quiere macarrones!!!

Hitzik gabe, siestarik gabe.

ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Emilio Perez
Elektragarri, telefonoa eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konposaketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIFUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

UJALAK

anonimoa

Denok gabilta aspaldiko urte hauetan kezkatuta, zeruari begira "lurraren berotze efektua" dela eta lehortea ez ote den azkarregi etorriko, etab.

Zoritarrez, bistan da, zientziak behin eta berriz frogatzen digu, berotzearen kontu hau egia dela.

Horretarako daude meteorologiako zenbait aparatu, non kontrakoa dioena oker dagoela argi uzten dutenak. Ez gara adituenak egiten hasiko eta eguraldi aldaketa ziurtat emanda zuzenean honekin erlazionatuta dagoen eta kezkatzen nauen gaiari ekingo diot.

ZUMAIA kostaldeko herririk politenetakoa da, bestela galde diezaiotela bertan paseatzera edo hondartzara edo surfera edo flyscha ikustera etortzen

direnei. Halare beste ezaugarri bat badu, bertokoen bizitza baldintzatu duena, ez azken 15 edo 50 urteetan, baizik eta mendez mendez; UROLA ibaiari agur esaten dioen herria izatea.

Agur eta ohore bidaiari, baina



bukaera tristea eman diogu hainbeste mesede eta uztza on ekarri digun urari, kanalizatuta utzi baitugu.

Barra ilegal bat erantsi diogu ezker aldean, ia mendi oso bat bota dugu

uretara ta gustora gelditu gara!! Badaezpada eskuinaldean beste harri pilo bat, ur dena xuxen jun dadin Itsaso zabalerarte. Ikusiko zenutenez, (zoritarrez ez dugu kaioen ikuspegi zoragarririk) ENBUTU forma eman diogu!

Eta zer gertatzen da enbutuan? Zuloa erraz tapona daitekeela; eta ondorioz gainezka egin! Horixe da nire kezka nagusia: Zer gertatuko da hurrengo uholdeetan? Zumaia urpean geratzen bada eta hildakoak badira, nor edo nortzuk izango dira errudun? Errudunak obra ilegal bat egiteagatik

gartzelaratu ote dituzte?

Espero behintzat inor ez hastea niri errua botatzen horrelako aldrebeskeriak pentsatzeagatik, izan ere hau FIKZIOA da, disparate hutsa! Edo ez?

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

dekorazioa
ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760

Arantza Aramendi
EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

orain 10 urte

Selektibitatea, San Pedroak eta obrak

Orain 10 urte... Bi urte bete zituen Baleiek eta orain, berriz, 12 beteko ditu. Bagoazela!! Orain 10 urte, gainera, 25. alea ateraz zen. Hori da eta!! 10 urte beranduago, aldizkariaren 150. zenbakia aterako dugu!! Baina oraindik ez... laster izango da!!

Orain 10 urte, izan zen Zumaian triatloirik. Eta aurten ere izango da: Zumaia III Triatloia, hain zuzen ere. Hantxe izango gara, eguraldi onarekin!!

Orain 10 urte... orduan ere... aaaiiii... hura sufri-mendua selektibitatea ateratzen behar zutenena. Oraingo ikasleek orduko azterketa horixe gaintu beharra dutela pentsatzen ere!! Animo, eta hondartzan edo kalean elkar ikusiko dugu!

Orain 10 urte... hidroponia baratzaren proiektuaren berri eman genuen. Orduan, ziklo berri bat hasten zen Zumaia Institutuan. Orain... ziklo bat itxi dute...

Orain 10 urte, San Pedroak iristear zetoze-la iragarri genuen. Ta orain ere, ilusio berberarekin esaten dugu... Badatoz San Pedroak... Konparatuko ditugu bi urtetako programak?

Orain 10 urte ere obra dexente egin ziren herrian, eta atal honetan ere ateratzen ditugu... Adibidez, non dago orain kanpako kantina? Aizue, ta inork ba al daki seguru-seguru zer egin behar duten Pulpo parean?!



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza

Tel. 943 861157

Etxea zuen ikastola

Hainbat ekitaldi egin dira Elbira Zipitriaren jaiotzaren ehungarren urteurrenean.

1906ko maiatzaren 28an jaio zen Elbira Zipitria Zumaian, Torreako porlan fabrikako etxean. Aita, Jazinto Zipitria, Billabonakoa zuen, eta ama, Maria Irastortza, Lazkaokoa. Aita hargina zuen eta gaztetan Donostiara joana zen bizi-tzara, Fermin Kalbeton kaleko 26.enera. Elbira hiru anai-arreben artean etxeko gazteena zen; ahizpa, Maria, moja zuen, eta anaia, Jorge, margolaria.

Foru Aldundiko bekei esker hasi zituen Elbira Zipitriak irakasle izateko ikasketak Donostian. Ikasketak amaitu eta berehala, 1914an, hasi zen Miguel Muñoak sorturiko Koruko Andre Mariaren ikastetxean eskolak ematen.

Andereño izateaz gain, EAJko alderdikide sutsua zen eta Emakumeen Abertzale Batzako kide. Hala, oso ezaguna izan zen guda aurreko garaian Gipuzkoako hainbat herri-tan. Emakume Abertzale Batzako kide izanik, 1936ko gerrak eztanda egitean Lapurdira egin behar izan zuen ihes.

Iparraldean ez zituen albo batera utzi andereño lanak eta Tolosako Labaiendarren etxeko txikienei eskolak ematen jarraitu zuen. Saran sei urte igaro ondoren, Donostiara itzuli zen berriro. Bertan, bai Arriolatarrenean eta beste zenbait etxetan jardun zuen isilean eta ezkutuan haurrei eta helduei euskaraz eskolak emanez.

Bere etxea lantoki

Hainbat etxetan eskolak ematen ibili ondoren, Elbirak Fermin Kalbeton kaleko 26.enean, bere etxean, zabaldu zuen lehenengo "ikastola". Goizetan 7-8 urte bitarteko hamar haurrekin egiten zuen lan eta arratsaldean, berriz, gaztetxo-agoekin. Liburuen faltan kanikak eta txotxak erabiltzen zituen eskolak emateko; kanikekin matematikak ikasten



zituzten eta txotxekin, berriz, irakurri eta idazten. Euskara lantzeko, berriz, abestiak, olerkiak eta ipuinak erabiltzen zituen. Eta asteen behin etxetik irten eta Urgulera egiten zuten irteera, naturarekin loturiko gaiak ikasleak euren begiez ikusiaz ikas zituzten.

Elbiraren eguneko lana ez zen horrekin amaitzen. Gauetan, helduekin, euskaldun zahar nahiz berrieekin gramatika, nor-nori-nork, aditza eta deklinabidea lantzen zituzten, besteak beste. Gainera, Elbirak ez zuen atsegin erdal formak erabiltzea euskara irakasteko eta sujeta, paciente eta recipiente albo batera utziaz nor-nori-nork forma erabiliz hasi zen.

Irakasle ikasketak burutuak zituztenei ere irakasten jardun zuen Elbirak. 1968an Orixe ikastola sortu zuen beste hiru andereñoekin batera. Gainera, Hernaniko Urumea ikastola sortzen ere lagundu zuen.

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

TXINGURRI
Koop.Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak

Ekitaldiak

Zipitriak euskal kulturaren eta ikastolen alde egindako lanarengatik omenaldia jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaiaiko Udalaren eskutik. Bere jaiotze dataren ehungarren urteurrenaren inguruan hainbat ekitaldi egin dira. Batetik, Elbira Zipitria gogoan liburua aurkeztu dute, DVD bat eta Donostiako Koldo Mitxelena kultur etxean hainbat hitzaldi eman dira, bere etxea zen Fermin Kalbeton kaleko 26. nean plaka bat jarri dute eta bere omenez Donostiako Orfeoia kontzertua eskaini zuen San Pedro parrokian. Orain, berriz, bere etxea museo bilakatzeko asmoa dute.



Elbira Zipitriak hainbat belaunaldiko umeei irakatsi zien.


Al Anon elkarteak 20 urte bete ditu Zumaian

Al-Anon elkarteak alkoholak eragindako senideentzako laguntza eskaintzen du. Izan ere, Euskal Herrian 360.000 pertsona ingururi eragiten die alkoholak, baina, horietatik 120.000 baino ez omen dira alkoholikoak. Gainerakoak alkoholikoen senideak, lagunak eta lankideak dira.

Al-Anon elkarteak alkoholikoen senideei eta ingurukoei laguntzen die, eta elkarteko bileretan elkartzen diren kideak anonimoak dira.

Al-Anon elkartearen taldeetan parte hartzeko ez da inolako kuotarik ordaindu behar. Taldeari buruzko informazio gehiago behar izanez gero Udaleko Gizarte Zerbitzuan galde daiteke.

Al-Anon Elkarteak 20. urtea bete du Zumaian, eta hori ospatzeko, maiatzean Gizarte Zerbitzuetan elkartu ziren, bai eta afari bat egin ere!



CROISSANTERÍA

pizzak
hanburbesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330

Udala, mozioak eta alderdien iritzia

Maiatzaren 25ean, osteguna, izan zen plenoa. Hiru gai garrantzitsu ziren eztabaidatzekoak, eta, orduan, hiru gai horiek onartu egin zituzten, baina Izustarriko zinegotziak erabaki hura bertan behera uzteko eskatu zuen, "udalbatzarrean batzordetik pasatu gabeko gairen bat" zegoelako. Udalak onartu egin zuen akatsa, eta ostegunean adostutakoa bertan behera utzi zuen. Berriz bozkatu ahal izateko 48 ordu igarota deitu behar zuen alkateak udalbatzarra. Horrela, igandean egitea erabaki zuen.

Hurrengo igandean, 12:00etan hasi zen batzarra, eta alkateak egun hori aukeratu izana azaldu zuen: "Izustarriko zinegotziak zalantzan jarri zuen ostegunekoak, eta hura legezkoa izan zela egiaztatzeke da gaurkoa". Ostegunekoak herrian "eragin duen alarma soziala, eta udalbatzarren izaera garbia mantendu nahia" ere aipatu zituen, argi utziz, "batzordeetako ebazpenak beti joaten direla irekita udalbatzarretara, proposamenak aurkeztu ahal izateko".

Igandean egin zuten udalbatzarra, osteguneko "forma akatsa" zuzentzeko, eta EAJren eta PSE-EEren aldeko zazpi botoekin onartu zituzten hiru ebazpenak. Izan ere, Izustarri, EA eta Ezker Batua Berdeak ez ziren azaldu. Gai hauek onartu zituzten: kreditu aldaketa (San Juan egoitza-

Azkenaldian, tirabirak izan dira Udalean, hainbat pleno eta mozio tarteko. Kreditu aldaketa eta hirigintzako bi gai onartu ditu Udalak, eta Izustarrik, EAK eta Ezker Batua-Berdeek salatu egin dute EAJren «jarrera itxia».

rena ere bai), Torreagako Arau Ordezkatzaileak eraldatzea eta Kofradia Eusko Jaurlaritzak Udalarari ematea.

Izustarrik, EAK eta Ezker Batuak bestelako iritzia eman dute Udaleko azken gertakariez

Hiru alderdiek ziotenez, "azken bost hilabeteetan bi udalbatzar bakarrik egin ditugu, eta orain zertara datoz presa hauek? Nahikoa denbora izan du EAJk besteekin negoziatzeko, baina harrokeriarekin, nahi duten bezala egiten dituzte gauzak. Hori salatzeke ez ginen joan igandean".

Hiru alderdiak bat datoz EAJren jarrera itxia dela eta. Udalak aurrekonturik ez edukitzearen errua EAJrena dela uste du Izustarrik, "EAJ negoziatzeko eta hitz egiteko gauza ez delako". EAK ere ildo beretik jo du, eta esan du "EAJ ez dela gai izan aurrekontuak besteekin adosteko". Ezker Batua-Berdeentzat "EAJ Udaleko alderdien arteko adostasunaren aurka dago".

Aurrekontu ezaren eraginei aurre egiteko, kreditu aldaketa proposatu zuen EAJk maiatzaren 25eko udalbatzarrean. Izustarrirentzat, kreditu aldaketak "egoera bereziei aurre egiteko dira, eta ez disimuluan aurrekontuak ateratzeko". EAren ustez, "hori aurrekontuen mamia aurrera atera-



tzeko saiakera besterik ez da, eta guk babesten ditugun diru partidak eta babesten ez ditugunak nahastu dituzte, dena era bateratuan aurkeztuz".

Bestalde, PSE-EEren jarrera "berria" dela diote hirurek. Izustarriren iritziz, "EAJk bidelaguna aurkitu" du hauteskundeak iritsi arte egonkortasuna lortzeko, eta "jakingo dugu zeren truke izan den". PSE-EE EAJrengana horrela arrimatzea penagarritzat jo du.

EAK PSE-EEK izan duen jarreran egon den aldaketa nabarmendu du: "Duela sei hilabete, aurrekontuak ez zituen onartu nahi, baina orain, kreditu aldaketaren alde dago, itxuraz behintzat, EAJrekin publiko egin ez duten balizko akordiorik gabe". Ezker Batua-Berdeek gogorrago jo dute sozialisten aurka: "EAJk beraien konplizitatea dauka, eta ez dakigu PSE-EE oposizioan ala gobernuan dagoen". Gaineratu duenez, "berdin zaio EAJk Hirigintza Zumaia Lantzen-en bitartez kudeatzea, edo Torrea-gako etxeak Puntanuetan egitea, edo Zumaia Lantzenek lehia-ketarik egin gabe Esarbe SAK kudeatzea".

Alkatearen jarreraz

Arrizabalaga alkateak eta EAJk ostegunean izandako «errespetu falta» nabarmendu du Izustarrrik. Bere onetik atera omen zen alkatea, hitz egiten ari zenari moztan, eta areto-tik alde egingo zuen mehatxua ere egin omen zuen. EB-Berdeek, «Marbellako ereduak» erabiltzea leporatu zioten alkateari.

PSE-EE ez dago ados oposizioko gainerako alderdiekin

Udalbatzarra bukatu berritan, alderdi sozialistako bi zinegotziek, Emiliano Cabañasek eta Paloma Herederok, "arduragabekieriaz" jo zuten Izustarriren, EAren eta Ezker Batua Berdeen jarrera, "gaurko udalbatzarra behartu eta gero ez azaltzeagatik". Beraien jarrera azaltzeko, aldiz, haxe esan zuten: "Haiek uste zuten gu kanpotarrak izanik, hutsuneak betetzera etorri ginela Zumaia, baina gaur argi gelditu da Zumaia alde lanean ari garela".

Pulpoko plazatxoaz

Pulporen aurreko plazatxoaz zabaltzen ari dira. Berritzen eta posteak jartzen. Hori dela eta, askok egiten duen galdera da zer funtzio ote duten plazatxoak eta posteak.

Baleike.com-en ere plazaratu dira zalantza batzuk, eta baten batek ere aditzera eman du lehendik ere nahiko aterpe badaudela inguruan baina taberna eta dendek betetzen dituztela berez guztiontzako leku izan behar zuena...

Segurua dena da hemendik aurrera ez direla hor auto asko geldituko... Baina, guri zalantza hau sortzen zaigu: non geldituko dira eskolako autobusak eta hainbat irteer-tara joateko antolatzen diren autobusak ere?

Orain beheko plazara joan behar ote dugu?



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01





Dakizuenez, herrian hainbat jende ibiltzen da eskalatzen. Lokal berria ere ba omen dute gortzeko.



Mariantonaitz edo Joxemite edo "Paret handia".

Blog berria: GORTU!

Bakeikeko blogetan sartzeko ohitura duzenok, badakizue ze berri den bertan. Baina azkenaldian sartu ez zaretenok, jakin beharra daukazue azkeneko berria: blog berri bat dago, GORTU izenekoa. Irtenaldietako abenturak eta argazkiak jartzen ditu Larregik, eta erabiltzaileak nahiko ondo hartu dute. Hona hemen bertan ikus daitekeenaren adibide batzuk:

Argazkiak: Imanol Azkue



Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantia
español
catalan
suomi
basc
català
finnois
francès
anglès
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

“Baserrian bizitzea bada nahiko abentura”



*Kalea utzi eta
2005eko maiatzetik*

*Xabier Aranguren baserrian bizi da,
Eli neskalagunarekin eta alabarekin,
Beizamako Leunda Berrin. Erabakia zerk
harrarazi zion eta baserrian zer aurkitu duen
jakin nahian elkartu gara berarekin.*

JUAN LUIS ROMATET

Okerreko errepidea hartu (Bidanikoak, horiek bai kurbak!) eta ordubeteko bidearen ondoren, heldu gara Leunda Berri baserrira. Han aurkitu dugu Xabier Aranguren, erremolatxa artean lanean. Zaku batzuen gainean eseri eta hitz egiten hasi gara hantxe.

Nola bururatu zitzaizun halako erabakia hartzea? Betidanik gustatu izan zait mendian ibiltzea, naturan barneratzea. Beste herrialde batzuk eta kultura desberdinak ezagutzea ere maite dut eta "atzeratuak" esaten ditugun gizarteak ezagutzea txoke handia izan da niretzat. Sistema

kapitalistak saldu digu gurea gizarte aurreratua dela eta besteena, pobreena, atzeratua dela; gauzarik ez dutela esan digute. Gero konturatzen zara horrek ez duela enkajatzeko. Hara joan eta jendea daukan gauza urriekin gustura, irribarretsu ikusten duzu. Materialismoa ez dute ezagutzen...

Beno, denetik izango da, ezta?

Bai, denetik dago, noski. Herri horiek ikusita hausnarketa bat egiten hasi nintzen. Ni ez nengoen batere konforme lehiakor-tasunean oinarritutako gizarte honekin. Garbi nuen zer ez zitzaidan gustatzen; zer egin, ordea, hor zegoen koska. Mundua aldatzea ezinezkoa da. Horregatik, aldatzeko era bat zu zeu aldatzea da. Orain urte batzuk nekazaritza ekologikoari buruz-



Xabi, etxeko sarreran.

ko ikastaro batean hartu nuen parte. Gero Deban baratzea jarri nuen eta lau gauza landatu nituen: letxuga batzuk, tomateak... Alboko baserrietan eta liburuetan ikusi eta ikasitakoa ilusioarekin praktikan jarri nuen. Urtebete pasa eta balantzea positiboa zela ikusita, aurrerapausoa egitea erabaki nuen. Jakin nuen gazte talde bat Beizamako baserri batean lan egiten eta bizitzen ari zela; ezagutu nituen eta antzeko gauza batzuk bagenituela ikusi nuen. Ikusi nuen baratzean ogibide bat lortzeko aukera bazegoela. Oso gustura sentitu nintzen, eta proposatu nion Eliri, neskalgunari, baserrira joatea. Eta hemen gaude.

Hartu duzuen erabakia ez al da nahiko utopikoa? Ideologiagatik egin dugu, pentsatzen dugunagatik, saltzen diguten ongizate gizarte honekin konforme ez gaudelako. Zerbait egin beharra nuen, bestela lehertu egingo nintzen. Zerbait alternatiboaren bila nenbilen eta hemen, baserrian, aurkitu dut. Azken finean, honetara itzuli gara jende askok uste duelako oraingo sistemak denbora bat barru lehertu egingo dela. Horren aurrean, bi postura daude: hondamen-

dia ez dugula ikusiko defendatzen dutenen postura komodoa edo aurre egitea.

Zer aurkitzen dugu hain jasanezina gizartean?

Kontuan hartu behar da I. Mundua izeneko gizartean bizi garela eta hori Lurraren ustiaketa basatian oinarritzen dela. Horren ondorioak non pairatzen dituzte? III. Munduan. Bertako kulturak, herriak desagertu egiten dira, kultura galdu, marjinatu. Horren aurrean, errudun sentitu beharko ginateke. Hemen, Euskal Herrian, gure hizkuntza eta kultura desagertzeko arriskuan dagoela ikusita, ez litzateke izango batere etikoa ezer ez egitea. Salaketak egitea ondo dago, baina hurrengo pausoa ere egin behar da, bestela sistemaren jokoan erortzen zara.

Eta baserrira mugitu zineten. Noiztik zaudete hemen?

Urtebete daramagu hemen. Oraingoz gustura gaude eta hemen jarraituko dugu aurten. Nik argi daukat ildo hone-tatik jarraituko dudala, bide honetatik bizimodua atera dai-tekeela uste dut eta. Proiektu honek porrot egiten badu ere, pentsatzen dut hemen ikasitakoarekin aurrera jarraitzeko heldutasuna lortu dudala.

Zenbat jende bizi zarete orain baserrian?

Proiektuak lau urte daramatza martxan eta orain bertan bost heldu eta bi ume bizi gara hemen. Eli eta nitaz gain, Madrilgo bikote bat eta Mexikoko neska bat gaude hemen.

Eta nola konpontzen zarete zuen artean?

Zailena elkarkidetza da. Gauzak ondo eramateko beharrezkoa da ondo antolatzea. Bakoitzak zer lan egin behar dituen erabakitzeko bilerak izaten ditugu. Hor ere faktore askok jokatzten dute: eguraldia, jendearen gogoia, lanerako zenbat lagun gauden, asteburuetan jendea etortzen baita. Bakoitzaren ardurak txandakakoak izaten dira. Hala ere, ez dugu kartel bat jartzen bakoitzari zein lan tokatzen zaion gogorazteko, espontaneoagoa izaten da. Inori ez zaio behartzen lan bat egitera. Adibidez, txerriak ditugu hemen eta nik txerriekin ez dut ezer jakin nahi. Gauza horiek aurrez esan

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



"Mundua aldatzea ezinezkoa da. Horregatik, aldatzeko era bat zu zeu aldatzea da."

"Lau urteren ondoren, beizamarrek ikusi dute baserria berreskuratu dugula, teilatu berria egin dugula..."

behar dira. Horrela, gure artean egon daitezkeen txokeak saihestu daitezke.

Ze motatako harrera izan zenuten Beizaman?

Madrildarrak lau urtean daude hemen. Beste leku batzuetan bezala, hasieran errezeloarekin hartu zituzten: "Hippy batzuk etorri dira, ea zenbat denboran irauten duten hemen". Madrilgoak izateagatik konnotazio politikoak ere baziren tartean eta herriko jende konkretu batzuekin izan

ziren tira-bira txikiak. Gaizki-gaizki ere ez zituzten hartu eta lau urteren ondoren, beizamarrek ikusi dute baserria berreskuratu dutela, teilatu berria egin dutela, egunero baratzean aritzen direla eta asteburuero azokara joaten direla, eta harremanak estutu egin dira.

Zer egoeratan zaudete lege aldetik?

Oraindik ez dugu ezer egin. Ez dugu nahi hau talde itxi baten proiektua izatea, komunitate irekia baizik. Ez gara burokrazia



Leunda Berri baserriko produktuak saltzen ibiltzen da Xabier azokaz azoka. Zumaiara ere astean behin etortzen da eskatutako barazki eta fruitu goxoak ekartzera. Baserriko produktu naturalak etxean jaso nahi badituzu, deitu telefono honetara: 617 03 23 66

zaleak, baina komeni da zerbait egitea. Gure ideien arabera, hobekien datorkigun figura juridikoa kooperatiba edo elkarte kulturala dira. Bi horien artean ari gara begiratzen. Azpimarratu behar da, ordea, irekiak gaudela. Edonork etorri nahi badu, egun batzuk pasa eta probatu nahi badu, atea irekita aurkituko ditu... Premia dugu, gainera!

Esan duzu bi ume daudela. Zeuek zaintzen al dituzue? Bai, oraindik txikiak dira eta hemen zaintzen ditugu. Primeran moldatzen dira, gainera, beti daude norbaitekin. Lehen bazegoen eskola Beizaman, baina orain ez, eta haur guztiak Azpeitira joan behar izaten dute. Guk ez dugu hori egiteko asmorik. Ez oraingoz, behintzat. Umeek harreman bat izan behar dute gurasoeekin eta hain goiz haurtzaindegietara eramateak afektibitatea murriztea eta lotura batzuk haustea dakar. Haurren lehenengo hiruzpalau urteak klabeak dira horretarako, momentu oso delikatuak baitaude. Badakigu adin bat arte haurrak eskolara joatera behartuta daudela, baina malgutasun bat dagoela ere entzun dut, hau da, uste dut azterketa batzuk pasa ondoren, aurrera jarraitzeko aukera dutela. Oraindik denborarekin gaude, umeak txikiak dira eta. Gure hurrei baserri eta nekazaritzaren ikuspegia pasa nahi diegu. Gero, hemendik

urte batzuetara, karrera bat egin nahi badute edo, uste dut baserriko erreferenteak geratuko zaizkiela. Nekazaritza Euskal Herriko erreferente garrantzitsua izan da eta orain zerbait pintoreskoa izatera pasa da. Eta hor badu erru handi bat hezuntzak.

Zein motatako produktuak lantzen dituzue hemen?

Urtaro bakoitzean garaiko generoak eta landareak ateratzen dira. Neguan gutxiago eta uda eta udazkenean gehiago. Une honetan baba, ilarra, erremolatxa, azenarioa, letxuga, kalabazina, kalabaza, tomateak, patata, baratxuria eta gehiago ari dira ateratzen. Abereak ere baditugu hemen. 35 ahuntz ditugu, baina bost basterik ez helduak. Horien esnea, oraingoz, etxerako da. Hemendik urtebetera hasiko gara gazta eta gurina egiten eta saltzen. Txerriak, berriz, etxeko haragijaleek jaten dituzte. Oilategia ere badugu. Tolosako azokan saltzeko dozena bat arrautza lortzen baditugu, ondo.

Zein azokatan saltzen dituzue zuen gaiak?

Astero Tolosako azokara joaten gara. Gureak eta beste baserri bateko gaiak eramaten ditugu eta haiek gureak Azpeitiko azokara eramaten dituzte. Horrela elkarlana, auzolana sus-

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



- Portatiliak eta ordenagailuak
- Laguntza teknikoa
- Tresna digitalak

Eusebio
Gurrutxaga, 6
tel. 943143395
ertz@laci.net.es

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

"Munduan paisaia eta herri ederrak izango dira, baina hemen, Euskal Herrian, toki zoragarrian bizi gara, nahiz eta zanpatzen jarraitzen duten."



tatzen da, kooperatiba baten antzera. Horren adibidea ere bada lursailena. Adinagatik edo beste arrazoren batengatik ustiatzen ez ziren lursail batzuk lantzen ditugu. Gero, ateratzen diren etekinak erdibana egiten dugu. Interesgarria da hau guretzat, produktua ere dibertsifikatu egiten baitugu.

Zein iritzi duzu nekazaritza ekologikoari buruz?

Ekologikoa hitza gero eta gutxiago gustatzen zaigu. Hitz horrekin ez da ziurtatzen baratzean inongo pestizida kimikorik edota substantzia artifizialik erabili ez denik. Guk oso gauza gutxi botatzen dugu. Jatordutan sobratzen dena txerriei ematen diogu. Baratzean behar dugun simaurra, berriz, ondoko baserri batetik lortzen dugu eta oiloen gorotzak eta usteltzen utzitako belarrak ere erabiltzen ditugu horretarako. Lantzen ditugun beste lursailak ere oso eman-korrek dira, ustiatu gabe denbora luze egon direlako. Hiru bat urtean ez da simaurrik beharko du lur horietan.

Zer etorkizun ikusten duzue hemen?

Oraingoz baserria bukatzea da helburua. Oraindik lan asko egin behar da hemen. Lursaila eta baserria erostearen zorra kitatzen denean diruaren behar handirik ez dugu izango.

Gutariko baten gurasoek jarri zuten dirua eta horrek malgutasuna ematen digu. Dirua bueltatu ondoren, lana ere dezente jaitsiko da. Kontuan hartuta lurra ia dena ematen duela eta abereak ere baditugula, ez dugu izango diruaren behar handirik.

Xabier Aranguren bidaiaria ezagutu dugu. Nekatu al zara?

Auskalo, bizitza hain luzea izan daiteke... Agian finkatze-ko, hankak lurrean jartzeko garaia heldu da. Azken bidaiak ez ziren lehengoak bezalakoak, ez zidaten hainbeste kontentsatzen. Beste ideia batzuk nituen buruan: ikastaro bat egin, Aragoiko herri okupatu bat bisitatu... Hemen urtaroen arabera, erritmo desberdinetan funtzionatzen da. Hila-bete batzuetan lana gogor egin behar da, baina beste batzuetan, neguan, adibidez, lan gutxiago dagoenean, tar-teak izaten dira eskapada txikiak egiteko. Kanpoan ibili naizenean ikasi dut hemen duguna baloratzen. Munduan paisaia eta herri ederrak izango dira, baina hemen, Euskal Herrian, toki zoragarrian bizi gara, nahiz eta zanpatzen jarraitzen duten. Gainera, hemen baserrian bizitzea nahiko abentura bada, oraindik ikasteko asko dago eta.

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



**Aurreko zenbakiko erantzuna:
Arbustain**

Sariduna: Larraitz Agirre Egaña

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.

GALDERA:

Gaurkoan leiho honetatik abiatuko gara, baina leihoaren ertzetako harriek badaukate zerikusia bukaerako galderarekin. Eraikin hau dagoen tokitik ederki ikusten da Zumaia, mendi baten gainean dagoelako, eta eraikinaren inguruan, apaizetxeaz gain, beste etxe batzuk ere badaude: Etxeberri, Samieltzar, lehen eskola izan zena... Mendiaren inguruan, bereziki aipagarriak dira arteak, eta hortik datorkio izena auzoari, eta txalet txikiez gain, baserriak ere badaude, gertuago edo urrutiago: Gorostiaga, Torre, Arteaga (Artia), Karakas, Basakarte, Flores (Proes)... Azken horretan geratuko gara, gaur egun landa etxe den horretan, hain zuzen. Flores edo Landartetik behera, lehen Guascor enpresa zegoen horretan, zer zegoen garai batean?

Arrasto txiki bat: begiratu parrokiari, Ubillosi, goiko argazkiari edo Zumaiako beste hainbat etxetako hormei...

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behe) edo 943 86 15 45 telefonoan eman uztailaren 4a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

**Parte hartu eta
zorte on!!**

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051
S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278
Maité
ileapaindegia

Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.

Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue !!

*Idatzi elkarte**a**@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKERen buzoian.*

Oraingoan, sari hau zozketatuko dugu.

Ekainaren 16an, PIKOR TEATROaren Zapaldu marra antzezlanaz goatzeko aukera izango duzue. Guk antzerki hori ikusteko bost lagunentzako bina sarrera ditugu.

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren aurretik.

Zorte on!!

Udaleko Kultur Batzordeak emandako txartelak.

Drogei eta gazteen arteko harremanei buruzko ikuskizuna da "Zapaldu marra". Urtarrilaren 9an estreinatu zuten lan hau, eta Euskal Herriko antzokietan emateaz gain, zenbait ikastetxetan ere egin dituzte emanaldiak; tartean, Zumaian.



OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

**FARMA ZUMAIA
PARAFARMAZIA**

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesatzeak, Estresaren, Antzetabaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA

anjel osa arrizabalaga

(1)

Anjel Añeza

ABELIN LINAZISORO

Galdeketa-erantzuna hauek paperera pasatzerakoan beti galdetuaren hitz egiteko era errespetatu izan ohi dugu eta zumaiarrez hitz egiterakoan, gerra ondorenean jaiotakook, beti, Zumai-xa, gorrixa, haundixa, eta abar erabili ohi izan dugu. Hitz egiteko era hau nabarmenago izan da herrigunean bertan eta galtzen joaten zen urrutiratu ahala: Estazioan, Jadarre aldean, Txikierdin, Larrondon, Andre Mari aldean eta abar. Baina bada hitz egiteko era bat gure gurasoek erabiltzen zutena eta guk galdu duguna, guk Andre Maixa, errixua, Santixo esaten genuen moduan, gu baino belaunaldi bat zaharrago zirenek ixa hizkia guk baino askoz xuabeago erabiltzen zuten, getariar zaharrak ere hala erabiltzen dute eta gure alfabetoan ez dago hizkirik hori adieraziko duenik, xa eta ia-ren tartekoa delako. Erriua eta errixua-ren, tartekoa. Santio-Santixo, Gorriagorrixa, eta abarren tarteko. Beraz, galdetuaren nahia errespetatuz erriua, Andre Maia eta abar jarri dugu, nahiz eta hizki xuabe hori erabili.

Zuek non jaiotakoak zerate? Goiko Torre aldean, ezta?

Bai. Arritokietan.

Zein etxetan?

Añezkuan. Guri beti Añezkua deitu izan ziu. Kastorreneko aurrian. Goiko Torreko eskubiko izkinan. Andre

Oso umetako kontuez akordatzten al zera?

Oso umetakuak... Eskolara behintzat Tintuxenera juten gitxuan.

Jolasean-eta Goiko Torre inguruan ibiltzen al zinaten?

Ez, jolasera Goiko Plazara jaisten gitxuan. Han ibiltzen gitxuan. Trenadioska, billeteka, kani-kaka, kukuka...Bestiak bezela. Ez gitxuan goian geatzen.

Ohiturik ba al zenuten Andre Marira edo Kanpo Santo aldera jolasera joatekoa?

Ez. Jolasera ez. Garai hartan mezak sarri izaten hittuan Andre Maian. Kanpaiak jotzen zien eta kanpaia aitzen gendunian, ba, meze-ta juteko moduan baginan, mezeta.

Eta mezetara aste egunean ere joaten al zinaten?

Bai. Han goian kanpaiak jo ezkeo, Andre Maixan meza dek, eta jun eiten gitxuan. Ohituratik-edo. Badakik, itxian hola hazitakuak gaittuk. Giro elizkoi horretan. Egunero errosaiua errezatu

eta horrelako gauzak.

Mendi aldera edo Ardantza aldera ez al zinaten inoiz joaten?



Mariko eskailerak hasten dianeko horretan. Oain ilobak-eta AÑEZKUA letrerua jarrita zikek.

Gutxi. Oso gutxi. Behin batian Kanpo Santu aldera hiru lagun jun gittuan. Han txilarra eoten huan. Patxi Barrenderok eskobak eiten zitian haiekin. Ba, halako motxak zibetian. Gu hirurok poxpoluekin jolasian hasi, su hartu zian eta nahiko istilu izan ginien. Txilarrak suak hartuta, jendiak sua itxaltzen, gu ihesika... Badakik. Umetako kontuak. Bestela, jeneralian, beheian ibiltzen gitxuan. Plazan.

Noiz jaiotakoa zera?

Ni 1.922-an. Azaroak 14-an. 84 urte ein behar aurten.

Jolasean mutilak eta neskak elkarrekin ibiltzen al zintzen?

Gutxi. Oso gutxi. Neskak neskaakin eta mutilak mutilakin ibiltzen gittuan.

Soka saltoan ere ez neskekin?

Ez. Pixkat koxkortu ginanian ere zenbaitek bezelako askatasunik ez ginien euki. Gure itxian, badakik, souak ere bai eta amari eta aittari astuakin-eta modu askotan lagundu ein behar. Eskolan ostegun arratsaldetan jai izaten ginien, baina guretzat ez huan jairik izaten. Beti zeozer sortzen huan. Hara belar bila, amari laguntzera... Bueno, soura behintzat.

Soraa non zenuten?

Puuff... Souak urruti. Hurriena belar-zelaia gitxikan. Punta deitzen gitxuan. Zelaia non dago? Ba, beste aldian, plaia aldeko belar-zelai hura. Hurriena hura, hau dek, belar bila juteko herriari buelta osoa eman behar astuakin. Gure etxetik Goiko Plazatik barrena, Erribera kalera eta handik Itzun bidera.



*“Eskolan ostegun
arratsaldetan jai izaten
ginien, baina guretzat
ez huan jairik izaten.
Beti zeozer sortzen
huan: hara belar bila,
amari laguntzera...
bueno, soura
behintzat.”*

Eta beste soroak, non?

Ba, Xar-Bideko itxiaren parian. Erriberetan. Loakietatik junda. Ayra-Durexek tailerra daukan pare horretan, eta hurrengoak Basustako palda horretan. Tuneletik beste aldera pasa, han behe-tik gora jun eta han goian beste terreno bat gitxikan. Patatak-eta han eiten ginien eta simaurra hara eaman ein behar, eta, bada-kik, aldapa txarra, eta ez ginien nahi izaten aldapan behiak kastingatzea gurdika simaurra iotzen eta tunel barrenian gurdia hustu eta astua kargatzen ginien.

Soro hoiek zer zian? Errentan hartutakoak?

Bai, errentakuak.

Zenbat zintzen etxean?

Gu sei senide. Lau mutil eta bi neska. Gurasoezin zortzi.

Aittatta eta amama ba al zenuten?

Bai, baina nik ez nitian ezagutu. Aitto-na itsasoan ibiltzen zala esaten zien. Zesareo izena zian eta belako barkuan itsasoan palo haunditik erori, min hartu eta ospitalian hil zala esaten zien. Nik ez nian ezagutu.

Itsasoan arrantzan ala...

Ez. Arrantzan ez. Nola ibiltzen zian belako barkuak karga-deskargan? Ba, hala. Ikatza han kargatu, hamen hustu... edo egurra...Behar zana.

Ontzi hura nongoa zen? Zumaiaakoa ala...

Ba, ez nikik esango. Patroia uste diat Juan txo Txonpen aitto-na zala. Zumai-ko tripulaziua gehio ere izango huan. Amona ere ez nian ezagutu, oso txikia nintzanian hil zalako. Amaren aldetik aiton-amonak ez nitian ezagutu. Aittaren aldetik, bai.

Hauek ere ume zinanean hil al ziren?

Ez. Aittarenak Basusta aldekuak hittuan. Oain loreteia-eta dagon base-ri horretakoak.

Senidetan zenbatgarrena zera?

Hirugarrena. Bi anai zaharro eta anai bat eta bi arreba atzetik.

Zuek, orduan, jolasean nahi baino gutxiago egiten zenuten.

Bai. Beti lanian. Simaurra karria-tzen, belarra jasotzen... Akordatzan nauk, bueno, hau gerokoa dek, 36-ko gerrako hasieran, Lasartetik abioi frankista batek ertentzen zian ia egu-nero frentea bonbardeatzea, El Abuelo, deitzen gitxuan, eta egun batian Basusta aldera hurreatu huan eta gu, badakik, askotan ibiltzen gitxuan han astuakin eta egun horre-tan, ez zekiat zeatik, bonba bota ezina-edo, eta hortxe San Migelko horretan bota zian bonba. Zulo eerra laga zian! Zean, Bedua aldian. Ia nola deitzen diogu toki horrei? Ba, hortxe. Erriua pasa eta beste aldian.

Gerra aitatu dezunez, 36-ko gerra piztu zenean, zuk 14 urte zenituen. Tailerrean lanean hasita al zinan ala ez?

Gu orduan eskolara juten gitxuan eta gerra sortu zanian ez zeoan eskolik.

Zein eskoletara joaten zinaten?

Maristetara. Hermano Cornelio eta Norberto... Bai, maristetara.

Zer moduzko maixuak ziren?

Jatorrak, Oso jatorrak.

Irakasle onak al ziran? Eta... egurra ematen al zizueten?

Egurra ez. Neretzako irakasle norma-lak hittuan. Badakik, beti eoten

“Patri barrenderok eskobak eiten zitian haiekin. Gu hirurok poxpoluekin jolasian hasi, su hartu zian eta nahiko istilu izan ginien.”

gitxuan bat edo beste, modu batera edo bestera, destakatzan zana, baina normalian danok ondo. Bazkalondo-tan frontoian pelotan ibiltzen gitxuan eta txistua jotzen ziguenian, eskailere-tatik behetik gora han juten gitxuan eskolara.

Zer ordutegi zenuten?

Goizian 8,30tatik 11,30tara eta bazka-

londoan, ziur-ziur ez natxiok, baina uste diat ordu bata t'erditatik arratsal-deko 4,30tara zala.

Orduan langileak tailerretatik irtete-ko ordua baino ordu erdi lehenago goizean.

Bai. Eta parrokira dotrina ematera asteazkenero juten gitxuan. Maristeta jun, biñan biña jarri eta ilaran eskola dana parrokira. Umetako pasadizo bat bazeukaat...

Konta ezazu lasai, gizona.

Ba... dotrina jun ginan batean, bueno, orduan txintxetekin jolasian ibiltzeko bolada ginien, ba, han eleizan, hartu diat patrikatik txintxeta, ahoan sartu eta... tragatu ein nian. Kauen sos! Xaharreneko Juanito, gero pilotua izango zana, gure arduraduna huan. Hasi nauk eztulka eta Don Wenceslao eta denak nerena. Hango mobida! Hartu niñuen eta etxera. Bidian, Artia-neko karnizeiko parian, emakume mordoxka zeoan kolan gibela erosteko. Zer du mutil koxkor horrek?, haiek. Txintxeta bat tragatu du, bestiak. Etxe-ra eraman eta handik Don Jose Ajuria medikuen. Beitu zian eztarrian, baina ez zian ezer ikusten. Donostira badaezpada. Orduan ez zeoan ezer hara juteko. Trenak ere gutxi. Akorda-tzen nauk Karmelonean neskame zeona etorri zala eta Karmelon semia Frantzixan ai zala estudiatzen, hara zihoala, lekua bazikela eta beaiekin



garraioak
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557
Izardien, 5-2A (Zurrutia) • Aitzpilgoeta, 16-E (Mendiara)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1

eamango niñuela automobilean. Donostian, ospitalean, ahalegindu hittuan txintxeta ateratzen, baina ezin atera. Orduan esan zien: Ez baldin badu ertentzen, operazio nahiko grabea ein beharko de. Amak eta izebak lagundu zien Donostira.

Han ospitalean lekurik ez zean eta biak etxera jun hittuan. Nei bost sillen gainean koltxoia jarri eta ni han lo. Erropak beste silla baten gainean jarri zitien eta ni kezka beteta. Operazio grabea! Gosiak ere bai, goizetik batere jan gabe nitxuan-eta. Goizeko bostetan edo seiretan jaiki nauk eta txaketako patrikan beitu diat jateko zoezer bilatu nahian, eta... zer bilatuko eta... beste txintxeta bat! Oain

zer ein behar det nik? Kumunera jun nitxuan eta, tak, bota nian txintxeta zulutik behera. Monjena jun nitxuan eta: Txintxeta ein det!, esan nitxuan. Hark: Esan ez dizut, ba, nik zuri oiñelien ein behar dala! Bai, baina, ni kumunera jun naiz eta... Hori da suertia daukazuna!, hark. Goizian etorri dittuk ama eta izeba eta haiei monjak: Zuen semiak txintxeta ein du. Libratu da. Haien poza! Haien poza, bai, baina nik barruan harra galanta! Gosiak amorratzen nitxuan eta nik: Ama, oain bokadillo bat behar det. Lehenbiziko tabernan sartu, bokadillo bat atera zien eta nik jan... ! Bueno! Hura gosia! Jan nian eta ondorio txarrik ez zian ekarri behintzat. Kezka bai galanta! Ño! Hura kezka!

Zuk, ez duzu, ba, txintxeta oraindik hor barruan eukiko, e?

Bai. Hoixe bakarrik falta diu! Bueno. Berandu etorri gitxuan etxera. Estaziuan maristak zibeztian gure zai, eta, zer moduz Angel?, gure amari. Gurekin dator, amak. Hura izan huan hura! Notizia bonba! Bai.



Baina kezka karga neretzat bakarrik. Gero konfesatu nian, baina handik urte pila batera.

Jarrai dezagun. Gerra piztu zanean eskolan ibiltzen zinan, noiz hasi zinan lanean?

Geroago. Karmelonian. Eustakio Karrakolo eta biok batera hasi gitxuan 1.938-ko urtarrean. Hamasei urte ein baino lehen.

Gerrako kontuez zerbait akordatzene al zera? Zerbait ikusi edo?

Ikusi... Barkuak artuakin-eta sartzen hittuan. Moila zaharrean almagarenak hittuan eta akordatzene nauk Elorria aldera jun ginala jai batian eta bueltan: Hi, bakailua ai omen dittuk partitzen! Mataixan bakailao pila sartu omen zien eta jende dana bakailota. Baina gu ailegatu ginanerako bukatuta

zeoan dana. Handik bi egunera artua deskargatu zien eta handik bai, bi edo hiru zaku ekarri ginitien etxera behiak junda.

Garai hartan gerraz zer pentsatzen zenuten?

Guk zer pentsatuko ginien, ba? Badakik, hi. Orduan, aitta moilan ibiltzen huan deskargan. Lanerako jendea bilatzeko arduraduna huan, Joxe Mari Arroiabekin. Joxe Marik esaten zioan: Honelako barkua dator eta honenbeste gizon behar ditteu eta gu danok ibiltzen gitxuan jende bila, Estaziora, Arru-Kalera, Andre Mari aldera, badakik, kale-baserrieta, barkua deskargatzeko.

Molaren tropak sartu zireneko zerbait gogoratzen al zera?

Tropak sartu... Sagar biltzen ai gitxuan. Amesmendiko atzian sagasti bat zien Xendoko Teodorok-eta. Hoiene ama, Teodoro, neu eta ez zekiat zein gehio ginan. Halako batian, Gau-Txoriko hortatik bandera espainolakin tropa pila haundia, txapel gorriekin-eta, sartu hittuan. Moila aldetik sartu ziala ere esan zien. Tropak ikusi genitunian, guk lanai laga eta etxera. Egun haietan soldaduentzat lekurik ez eta etxeetan geatu hituan lotan. Bi edo hiru egunean egon hittuan Zumaian eta gero Andutze euki zien lehenbiziko frentea. Gure aittari eta jende gehiori agindu, behiak hartu eta Andutz aldea jun behar izan zien muniziuera eramatera. Gurdiakin. Elorria ailegatu zianian, errepublikako abioi bat azaldu eta bonbak nola bota

zitun esan zigun aittak. Nahiko bildur-tuta etorri huan.

Gerra piztu aurretik joaten al zine-ten batzokira?

Bai, bai. Noski. Orduan batzokia eta karlistena zeudean, hau Hotel Zumaiako horretan. Círculo Tradicio-nalista. Hamendikan Patxanganeko (Trapaia) aurreko horreta pasa zien. Orduan, badakik, nazionalistak eta reketek alkarren kontra.

Zuek eztabaida politiko horietan inoiz parte hartu al zenuten?

Ez. Astirik ba al ginien, ba, horretako? Batzokira bai, juten gitxuan. Astebu-ruetan. Jolasera edo jokura, baina poli-tika konturik, ez.

Batzokian zer joko motetan ibiltzen zineten?

Kartaka ibiltzen gitxuan. Antzerkiak ere eiten zitien, baina nik neuk ez nian behin ere parte hartu antzerkian. Jun bai, juten gitxuan ikustera. Danak eus-keraz hittuan-eta.

Orduan, zuek bezala, aste osoan lana lepo izaten zenutenentzat ere, batzokira joatea kontu normala zen, ezta?

Bai, bai. Gainera gure etxeko giroa ere horrelakoa huan. Normala, bai.

Batzokian euskaraz idazten eta ira-kurtzen ikasteko eman ziren eskole-

tan parte hartu al zenuten?

Bai. Beobidek ematen zitian eskola hauek. Parte hartu nian. Beti ez. Hara juteko astirik ez nian izaten-eta, baina kurtsilo batian parte hartu nian. Beobi-de hau Euskal Telebistan lana eiten zun Iñaki Beobiden aittona izango huan. San Telmo kaleko Txonpeneko

*“Andutz aldera jun
behar izan zien
muniziua eramatera.
Gurdiakin. Elorrira
ailegatu zianian,
errepublikako abioi bat
azaldu eta bonbak
nola bota zitun esan
zigun aittak.”*

etxekoa. Baina normalian ez ginien izaten astirik hara juteko. Gainera, gure aittak gabarra zian eta hondarra ekartzen-eta ibiltzen zanez...

Nondik hartu eta nora eramaten zuen, ba, hondarra?

Hartu Santiotik eta eraman jendiak

eskatzen zun tokira. Bolada batian Zumarragara eamaten zien, obretako. Hemen Urolako bagoietan kargatuta. Hondarra Oikira ere igual eamaten zian. Kondea-eta, Turrunteira-eta... Larrondora ere bai. Eskatzen zuten tokira.

Santixon kargatu eta errixotik gora hain urrutira eramaten al zun?

Bai, bai. Esan ez diat, ba? Konderaino ere bai. Maria haundia behar izaten huan horretako eta ura goraka dijoala. Zortzi-hamar toneladako gabarra kar-gatu ein behar da, e? Aittari anaiok lagundu kargatzen, gabarrak ura har-tzen bazun, txikatu eta moilara ailega-tzen ginanian, aittak guri soka eman eta lehorretik laguntzen gitxuan gaba-rra eramaten, haiek eta luakiak bukatu arte. Handik gora bea bakarrik juten huan. Badakik luakiak non bukatzen dian, ezta? Oain Egurko dagon hori baino gorago.

Urrutira joan behar zuenean, orduan, zuen aitta txopako arraun bakar horrekin zingan eta zuek lehorretik sokatik tiraka.

Bai, baina hurrera ez. Hamen, Moila Berrian bagoiak kargatzeko-eta, ez. Arranplan ere askotan deskargatzen ginien. Adibidez, Karmeloneko taile-rrak eiteko bete lana ein zanian hon-darrakin ere ein huan. Bueno, honda-rra gutxiena. Zakarra, harrixa eta beste zenbait material gehiena.

jarraituko du...



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.L.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

"Kendu behar zuten arren, zikloa eskaintzen utzi digute orain arte"



BALEIKE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak debekatu egin dio Zumaia-ko Institutuari Elektrizitateko Erdi Mailako Zikloa ematea. Dirudenez, Hezkuntza Sailak Erdi Mailako eta Goi Mailako Zikloak zentralizatzeko helburua du, eta pixkanaka Urolako eta Kostako Zikloak kentzen ari da, eta eskola jakin batzuetan ezartzen.

Guk Institutuko bi irakaslerekin hitz egin dugu: Pello Iribar zuzendariordearekin eta Garikoitz Garmendia irakaslearekin.

Haien ustez, Sailean aspaldi erabakia zuten Zumaia-ko Elektrizitateko zikloa kentzea, baina urtero eskaintzen utzi diete. Orain, urteetan egindako inbertsioa alferrikakoa izan dela ohar-tzen dira irakasleak. "Urteak eman ditugu gelak prestatzen eta materiala egokitzen, eta orain dena hortxe geratuko da. Gela horietan prestatutako koadro, makinak eta abarrak ez ditu inork erabiliko". Horrek ere diru-galera bat ekarriko du, noski.

Gainera, haien ustez, sekulako aukera galtzen ari da Urola Kostatik ziklo hauek kentzen. Izan ere, Azpeitian ere bi ziklo kendu dizkiete. Horren ondorioz, hemengo ikasleak Usurbile-raino joan beharko dute, adibidez. Eta, noski, han herri askota-ko jendea egongo denez, erdaldunak ere asko izango dira; ondo-rioz, hemen euskaraz ikasi zezaketen ikasleek, erdaraz ikasi beharko dute ziur aski.

Irakasleek diotenez, maiatza bukaerarako hamar lagun baino gehiagok izena emanda zuten Elektrizitateko Zikloa egiteko. Horien ustez, ez zuten erabakia hartu behar, gutxienez, matriku-lazioa bukatu arte. Izan ere, kopuruak argi erakutsiko zuten, Zumaia-ko gutxienezko kopuruak gainditzen dituela. Baleike haiekin hitz egiten ari zela ere jendea hurbildu zen informazio eske eta izena ematera, eta ezezkoa eman behar izan zieten.

Hezkuntza Sailak hartu den erabakiarekin ados ez daudela adierazteko Institutuko irakasleek idatzi bat kaleratu zuten. Ondoren jarri dugu.

Euskal Eskola Publikoa erdalduntzeko moduak: eguzkia ilun dezagun

Pozgarriak izan dira maiatzaren 27ko eguna –Bai Eskolak euskalduntzeari! kanpainako manifestazioa– eta maiatzak 28koa –Elorrioko Ibilaldia–. XXI. mendea hasi eta eguzki distiratsua euskararen zeruertzean. Baina ez da hala gerta-tzen leku guztietan: Hezkuntza Sailak debekatu egin dio Zumaia-ko Institutuari Elektrizitateko Erdi Mailako Zikloa eskaintzea, D ereduan. Lau urte ditu ziklo horrek, eta leku gutxitan bezala eskaintzen da euskaraz. Gainera, azken urteotan apustu eta lan handiak egin dira: besteak beste Instalazio Bereziak izeneko gela bat muntatzea baliabide uga-riekin (atezain automatikoak, segurtasun sistemak, hari musikala, antena mota guztiak, etab.)

Hori dena osatzeko, eta gaur egungo gizartean energia-iturri berriztagarriak eta ez kutsakorrak aztertze-ko behar handia dagoenez, eguzki-plaken bidezko instalazio oso bat ipini da: plaka fotovoltai-koak jarri dira ikastetxearen hegoal-deko paretan. Plaka fotovoltai-ko horiek lortzen duten eguz-ki-energia aski da gela horretako iluminazio eta argindar beharrak betetzeko (ordenagailuak, ekipoa...), eta, gainera, praktikak egiteko balio dute: bai Instalazio Bereziak izeneko ikasgaiaren barruan, bai langileentzako ikastaroetan.

Hain zuzen ere, arrakasta osoz bukatu berri da aur-tengo bigarren ikastaroa, Eguzki-plaka fotovoltai-koak ins-

...

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Indurigrunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 04 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
ahalakulartza teknikoak,
Balorazioak

TXINGURRI
Koof. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA

Mota guztietako
altzariak eta
arotzegi lanak

Julio Beobide, I
TEL: 943 861325


talatzea eta mantentzea izenekoa. Denera 24 lagunek hartu dute parte, eta asko izan dira parte hartu ezinik geratu direnak, plazak bete direlako. Nork bere etxean horrelako instalazioak jartzen ikasteaz gain, dauzkagun kontsumo-ohiturak modu zuhur batean aztertzeak aitzakia polita.

Laburbilduz, esperientzia polita izan da iraun duen bitartean: Hezkuntza Sailaren erabakiz, Lanbide Heziketan euskarazko ziklo bat kendu nahi da eta elektrizitatea ikasi nahi duenak kanpora joan beharko luke. Hori bai: ia seguru erdaraz egitera. Irakasleak, zuzendaritza eta gurasoak goizeko 9etan Lakuara negoziatzera joan, eta Hezkuntza Sailekoen esana: merkeagoa omen da ikasleak hartu eta Estatu Batuetara bidaltzea. Ez gaude seguru haraino helduko diren, baina segurua da zumaierrek –berdin Urola eta Deba bailarako herritarrek– hezkuntza publi-

koan eta euskaraz orain arte Zumaian bertan ikas zezaketen zer-bait, hemendik aurrera Tolosan ikasi beharko luketela. Gainera, Urola-Kostako bailaran Lanbide Heziketako Goi Mailako zen-

trorik eduki ez, eta kendu egin nahi da lehendik dagoen eskaintza urria. Akabo da Zumaia aldeko langileek orain arte jasotzen zuten ikastaro-eskaintza: bost urtean 4000 ordu eta 300 langile inguru. Hemen zerga gutxiago ordaintzen ditugulako ote da? Horrela ibili beharko da, nonbait, Lanbide Heziketako Zuzendaritza ekonomisten eskuetan egon, irakaskuntza pribatuaren aldeko apustua egin, eta pertsonak ez baizik zenbakiak ikusten diren bitartean. Eta Zumaia oso hurbil, ikasle euskaldunak askoz gehiago

izan erdaldunak baino, eta A eredu aurrera! Agian dirua aurretuko dute horrela, baina baita Lanbide Heziketa are gehiago erdaldundu eta euskararen zeruertza ilundu ere.



Alberdi
Gizonerzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA
Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
Decoración

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

AIZPURUA
LIBRERÍA
Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Urtebete inguru da Txinparta Euskara taldea lehen aldiz agertu zela kalera, eta balorazioa egiteko ordua iritsi delakoan, taldeko kide batzuekin elkartu gara, taldearen jardunari buruz hitz egiteko, baina baita herrian euskararen normalizazioak daraman bidez jarduteko ere.

Txinparta, ur te bete bete

BALEIKE

Orain bi urte hasi omen ziren taldekide batzuk elkartzen, Zumaian euskara talde sendoa falta zela eta, jendea elkartu eta lanean hasteko gogoz.

Orain bi urte mugitzen hasi zineten. Zumaian euskararen arloan hutsune bat sumatzen al zenuten?

Bai. Taldeko kideak lehen ere ibiliak ginen euskararen arloko taldetan, eta aspalditik ikusten genuen hutsune bat. Gure artean, aspalditik ari ginen esaten, Zumaian euskararen egoerari buruzko azterketa egin behar zela; erabilerarena batez ere. Azken azterketak 2000. urte ingurukoak dira, Siadecorenak, eta jada egoera aldatu egin dela uste badugu ere, azterketa horrek ondorio batzuk ateratzeko aukera ematen du; eta, nola begiratzeko zaion izango da, baina guri ez zaizkigu oso itxaropentsuak iruditzen. Normalkuntzarako ezinbesteko urratsa erabileraren sustatzea iruditzen zaigu guri, eta hori ezinbestekoa dela erakutsi zuen azterketa hark. Nabarmenak dira joera batzuk, behintzat; adibidez, zein da lantegietan erabiltzen den hizkuntza nagusia edo bakarra? Eta zer gertatzen da kalean? Kalera atera, eta zer hizkuntza aditzen dugu, eta zer erabiltzen? Arloz arlo aztertuz gero ere, emaitzak ez dira itxaropentsuak eta ezin dugu ahaztu etorkinen arloa ere: nork erakutsiko die etorri berriei guk beste hizkuntza bat dugula, instituzioek nahiz herritarrek bidea erakusten eta behar bezainbeste laguntzen ez badiete?



Udalak orain bi urte ekin zion EBPn euskara normalizatzeko planari. Zuen ustez, ez al du horrek bidea ireki euskararen normalizaziorantz?

Hala izan beharko luke, baina baditugu gure zalantzak. Hor ere, gure ustez, hutsune nabariak daude. Egia esan, ez dugu emaitza handirik ikusi. Hasieratik hainbat aldiz adierazi du udalak euskararekiko konpromisoa hartu duela, eta erronka horri aurre egiteko prest dagoela, baina ekintzek ez dute hori behar hainbat adierazten. Udalak abian jarri duen prozesua bera ere oso modela iruditzen zaigu. Esaterako, EBPn plana aurrera eramateko teknikaria orain 2 urte hartu zuen udalak, eta epe horretan, berez, gauza ugari egin daitezkeela uste dugu. Gainera, lanpostu hori aldi baterakoa da,

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneako menua

- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

eta, horrenbestez, ahaleginak are handiagoa izan beharko luke.

Gure ustez, gainera, Udalak gehiago bultzatu beharko luke herritarren parte-hartzea. Esaterako, Kontseiluak Bai Euskarari kanpainaren amaieran Normalizatzeko Planak bultzatu zituen zenbait herritan; Zumaiaiko Udalari ere eraman zitzaion proposamena, baina ez zuen onartu, nonbait, plan hobea zutelako. Ondoren EBPn planak bultzatu zituen Eusko Jaurlaritzak eta Zumaian ere horrela egin zen. Baina guri iruditzen zaigu horrelakoak plan instituzionalak direla, eta aginduz etorri direlako eramaten direla aurrera. Kontseilukoek bultzatzen zituzten planek, ordea, inplikazio handiagoa eskatzen zuen; izan ere, hiru oinarri behintzat bazituzten: konpromisoak bete beharra, herritarren parte-hartzea, eta lagun bat edo bi hartzeko beharra lan horretan jarduteko. Gu gehiago ginen horrelako plan baten aldekoak; nahiz eta Kontseiluaren izenean ez egin, ideia haiei jarraitzearen aldekoak.

Non ikusten duzue hutsunea EBPnren garapenean? Askotan pentsatzen dugu udalak dituen baliabideekin zenbat gauza egingo genituzkeen. Izan ere, lagun bat izan dute egun osoz horretarako... Baina, jakin badakigu pertsona horrek hainbat lan egin behar izan dituela bitarte horretan, berari ez zegozkionak, gure ustez. Euskara teknikari ohiak duela bizpahiru urte hartu zuen erretiroa, eta ordutik pertsona bakarra ibili da bi lan eginen: batetik, udaleko euskara teknikariari dagokionena (besteak beste, herriko kudeaketarekin zerikusi duten hainbat lan); bestetik, normalizazio planari dagokionena. Orain, gainera, euskara teknikariaren lanpostua bete dute, eta pozik egoteko arrazoiak genituzke normalkuntzakoa hutsik utzi ez balute. Ez dakigu zer gertatuko den lanpostu horrekin, baina, tamalez, ez diogu gaiari itxura onik hartzen.

Hala ere, EBPnren barruan, hainbat ekitaldi antolatu dira Zumaian...

Hori ere nondik begiratzen zaion izango da. Esaterako, udalak merkataritza lantzearen aldeko apustu garbia egin du, eta gainerako arloak bigarren maila batean utzi. Hala ere, 2005eko udaberrian, enpresa pribatu bati esleitu zitzaion merkataritza plana aurrera eramateko ardura. Guk, orduan, ez genuen ulertzen zergatik egin zen hori, urte horretan arlo hori soilik landu behar bazuten nahikoa zelako normalkuntzako teknikaria, eta ez zegoen enpresa bati ordaindu beharrik. Hori alde batera utziz




GOROSTIA

(*Ilex aquifolium*)



EZPELA

(*Buxus sempervirens*)



OLIBONDOA

(*Olea ueropaea*)



XARMA

(*Carpinus betulus*)

Ekainaren 10ean, larunbata, 10:00etan, Txinparta Euskara Taldeak eta Natur Taldeak, Udalaren babesarekin, irteera antolatu dute herriko zuhaitzak Euskaraz izendatzera.

gero ere, oraindik ez dugu emaitza askorik ikusi merkataritza plan horri dagokionez. Ikastaro bat antolatu dute, bai, baina, horrez gain, ez dute asmatu merkataria-
sensibilizatzen edo motibatzen, eta, gure ustez, horrek izan beharko luke abiapuntua. Lehenik, sentsibilizatu, motibatu, beharrak sortu, kontzientziatu, eta, ondoren, baliabideak eman, prestatu, antolatu. Ez diogu hori denik bide bakarra, edo onena; erabili dutena baino askoz zailagoa da, gainera, lan askoz handiagoa eskatzen du, baina emaitzak hobeak izango zirela iruditzen zaigu. Agian esango digute ikastaro hori planaren zati txiki bat baino ez dela dela; beno, plana eskatu dugun arren, ez dugu ikusterik izan, eta, beraz, horiek gure irudipenak dira. Baina, horretaz gain, helburu zehatzik gabeko ekintzak antolatzen direla iruditzen zaigu; hau da, zerbait egin behar denez, ekintza ikusgarriren bat antolatzen dute, baina helbururik eta oinarri-
gabea, eta horrek ere, zoritxarrez, ez du askotarako balio.

Zuen aldetik, parte hartzen al duzue plan horretan, proposamenak eginez edo zuen ideiak helaraziz?
Esan behar dugu, Txinpartako kide batzuk parte hartu dugula –bezero gisa– merkatarientzat eta bezeroentzat egindako bileretan, eta, hortaz, ez gara ari itsutsuan.

Zoritxarrez, prentsan azaldutako iritzi artikulua-erengatik Txinparta Aholku Batzordetik kaleratua izan zen.

Hala eta guztiz ere, momentuz, guta-ko batzuek parte hartzen dugu Aholku Batzordean, lehenago ere pertsonalki eskatu genuelako parte hartzea. Eta talde asko joaten ez zirenez... Gehiago ere egin nahiko genuke batzorde horretan, baina askotan, tamalez, proposamenak airean geratzen dira, eta batzordeak erabaki-ahalmenik ez duenez... Gainera,

**"Batez ere,
motibazioa landu
nahiko genuke;
izan ere, jendeari
euskara
erabiltzearen
aldeko arrazoiak
eman behar
zaizkio"**



Joan den urtean, irteera antolatu zuten algorriko itsaslabarrak eta izadia ezagutzeko, Natur Taldearen laguntzarekin.

lehen esan dugun bezala, instituzioaren izaerak eta teknikariaren lan zamak ez dute asko laguntzen.

Hala ere, Udalarekin harremanak badituzue, ezta?

Bai, jakina. Guk eskaerak egin izan ditugu, eta Udaleko Batzordeek erabaki dute laguntzak ematea eta lokalak uztea, adibidez, antzerki tailerrera, edo ekainerako Natur Taldearekin antolatu dugun irteerarako. Izan ere, inoiz tirabirak izan ditugula ez du esan nahi elkarlanean aritu ezin garenik. Guk oraindik gehiago ere sakondu nahiko genuke harreman horretan, normalizazio plana garatzeko edo beste kontu batzuetarako ere.

Txinpartak bere aldetik gauzatu ditu bere asmo batzuk, ezta?

Bai, noski. Hainbat ekintza antolatu ditugu: uztailen haurrentzako jokoak antolatu genituen; bestalde, Natur Taldearekin

batera, labarrak ezagutzera irteera egin genuen, bertako izadia ezagutzeko eta euskarazko izenak eta Zumaian erabili izan direnak ikasteko! Antzerki tailerra ere antolatu genuen –Udalaren laguntzaz–, Kilometroetara joateko autobusa, Baleikeko web gunean bloga martxan jarri

ekin
Zabaleria, s.l.

Deiaren Kalea 10 bidea, 48901 Euzkadi Tlf: 943 14 3037 ekin@ekin.com www.ekin.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

 **DIGITAL +**

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

dugu (<http://www.baleike.com/blogak/txinparta>), eta gabonetan otar berezia zozketatu genuen. Sekulako arrakasta izan zuen liburuz eta diskoz osatutako otarrak! Orain Gipuzkoako Elkartearen erregistroan izena emango dugu, eta laster elkarte "ofiziala" izango gara. Bestalde, Santa Agedan esku-orriak banatu genituen, KORRIKA laguntzaile eta antolatzaile ere izan ginen, eta kalean gure presentzia ziurtatzen saiatzen gara, jendeak ez dezan ahaztu zertan ari garen...

Zein da egiten duzuen balorazioa urtebeteko jardunaren ondoren?

Urtea, egia esateko, gazi-gozoa izan da, ez baititugu gauzatu nahi genituen egitasmo guztiak.

Hor geratu zaigu, esaterako umeentzako antzerki tailerra, eta baita beste hainbat asmo ere; ea aurrerago guztiei ekiterik dugun.

Datozen hilabeteetarako asmorik ba al duzue?

Lehen aipatutako antzerki tailerra hor dago... Bestalde, dagoeneko antolatzen ari gara zenbait gauza: San Pedro-tarako kamisetak atera nahi ditugu, adibidez. Natur Taldearekin batera, gainera, zuhaitzak izendatzeko irteera antolatu dugu, udalaren laguntzaz. San Juan bezperara-

ko ere zerbait egingo dugu, eta ea lortzen dugun. Aurten, iaz bezala, umeentzako tailerrak antolatuko ditugu uztailen.

Zuen ustez, beraz, nahiko lan dago Zumaian egiteko, euskararen erabilera eta ezagutza sakontzeko.



Bai, eta ez gutxi, gainera. Guk indarra arlo batzuetan egin nahiko genuke batez ere: aisialdia, erabilera sustatzea, euskaldunen eskubideak aldarrikatzea, beste taldeekin elkarlanean aritzea, Institutioetan parte hartzea, eta etorkinen arloa. Beste herri batzuetan ekimen egokiak eta politikak aurrera eramaten ari dira, eta gu haiengandik ikasten... Nahiko lan badugu, beraz.

Hala ere, batez ere, motibazioa landu nahiko genuke; izan ere, jendea hizkuntza erabiltzearen aldeko arrazoiak eman behar zaizkio.

Bukatzeke, zer esango zeniekete herrikideei?

Jendea ere animatu nahi dugu parte hartzera; izan ere denen laguntza behar da! Astean behin elkartzen gara beste taldeek uzten diguten lokaletan, eta bertara gonbidatzen zaituztegu guztiok! Gurekin harremanetan jaritzeko: txinpartazumaia@euskalerrria.org.

Bosodi
albatzaritza
Albaitaria
Maki Gomendio
Bosodi 7 behe - 20750 Zumaia - Tel.: 943 143 310
Emaila: velenari@bosodictinivel.com
Web orria: www.bosodictinivel.com
Orduak: 11-12 / Arratsak: 16-19:30 / Astelehen gozakeria larunbatetik igarri
Larritaldetarako 025 735 757 Eusko erkara zerbitzuak


SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza
- Merkantzari eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416



Xanti
ALTZARIAK S.L.
Mota guztietako altzariak
Xanti Osa
Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 191

San Pankrazio vs Razzmatazz

HAIZE GALARRAGA

Sanpankraziotan urtero egoten da talde interesgarriren bat ostiraleko kontzertuan. Aurtengo kontzertuko talde nagusia Veronika Decides to Die zumaiaarak izan genituen. Ikusmina handia zen, orain arte ia kontzerturik ez baitute eman eta Zumaian inoiz ez baitute jo. Aurreko Baleike batean eurekin elkarritzeta izan genuen eta talde gogorra zela ziurtatu ziguten. Hori egiaztatzeko asmoz, jende dexte elkartu ginen Estazio alde horretan, itxaronaldia nahiko luzea egin zen aurreko bi talde patxangeroak zirela medio. Astunena lehenengo taldea izan omen zen; izan ere, taldekide batek soka bat eten zuen eta ordezeko gitarrarik ez zuenez (eta sokak aldatzeko abileziarik ere ez, antza), hogei bat minutu behar izan baitzituen soka berria jartzeko... tamalgarria. Zorionez, ez nuen etenaldiaz gozatzeko aukerarik izan, Estazioak, txosnaguneaz gain, beste bi aisialdi gune ere baditu eta.

Azkenean, Veronikarrek igo ziren eszenatokira. Hasi eta berehala taldeak beregan zuen guztia eman zuen ahalik eta egurrik handiena emateko. Helburua bete zuten, erdipurdikako soinu teknikariek zailtasunak jarri zizkieten arren. Petxak, bere Frank Sinatra-Jonny Rotten itxurako mikrofonoa gogor helduta, etengabeko orroak bota zituen; "My Way"--ren sortzaileak inbidiaz ikusiko luke mutil honen sasoia. Taldekideek behin eta berriz Chimaira aipatu arren,



ahotsari Backfire! bezalako jarkore taldeen antza gehiago hartu nion. Unai, berriz, Arroa baxu joleen harrobia dela erakutsiz, hatzekin sokak astintzen zituen, eta abesti batean baino gehiagotan slap bikainak egin zituen; eta hori Unai aurreko talde guztietan gitarra jo

duela... Baxua jotzeko tankera eta soinuak Korn-en hasierako garaiak ekarri zizkidan gogora. Aimar eta Jijasek ohi baino gehiago eragin behar izan zieten euren gitarrei, nahiko apal entzuten baitziren teknikariaren erruz. Aitorrek bikain erantzun zion soinuaren desorekari, gehiena bateria entzuten zenez, inongo akatsik ezin baitzuen egin entzule zorrotzak aztoratu gabe. Horrela, ba, egurraren atzetik egurra emanez kontzertu ederraz gozatzeko aukera izan genuen.

Asteburu musikala ez zen hor amaitu. Izan ere, zumaia talde batek Bartzelonara joateko aukera izan baikenuen TOOL ikustera. Bere aurreko diska atera eta bira egin

Kapaia
Antena

Enbeto Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



zutenetik bost urte bete direnez, Bartzelonako kontzertuak sortu zuen ikusmina Veronikarenaren parekoa zen. Maiatzaren lehenengoan atera zuen Toolek bere azken maisulana: "10,000 days". Astelehenean arratsalde partean jende ugari bildu zen Bartzelonako Razzmatazz aretoa ilara txukunean inguratuz. Sarrerak aspaldidanik zeudenez agortuta, ohiko errebetak han ziren inguruan, aurretik sarrerak erosteko aukerarik izan ez zuten Toolen jarraitzaile fidelen kontura xox batzuk atera nahian. Azkenean, ikusleak aretora sartzen hasi ziren poliki-poliki. Moteltasunaren arrazoia gehiegizko segurtasun neurriak izan ziren. Segurtasun neurriak, ordea, ez ziren amerikarren atentatu paranoiagatik zorrotzu, argazki eta bideo kamerak aretora sartzeko debekuarengatik baizik. Lehendik ere entzuna genuen talde honek euren irudiarengan nahi izaten duen eksklusibitatea, urte askotan, behintzat, ez elkarriketetan eta ez bideoklipetan ez baita beraien irudirik agertu.

Rock Zone aldizkariak Tool-i egin zion elkarriketetan, bira osoan Isis taldeak lagunduko ziela iragarri zutenez, han egon ginen teloneroak agertu zain. Denbora aurrera joan ahala, jendea urduritzen hasi zen kontzertua ez zelako hasten, txistuak eta oihuak nagusitzen ari ziren momentuan oihala ireki

eta eszenatokiko argiak piztu ziren. Han zeuden musikariak ez ziren Isisekoak. Tool-eko Justin, Danny eta David ziren eta 10,000 Days-eko abesti baten hasiera jotzen ari ziren. Batean han bilduta geunden ikusleei atzerapenak, teloneroen falta eta beste pena guztiak ahaztu eta bihotza ziztu bizian jarri zitzaigun. Tool-en betiko layouta ikus zitekeen eszenatokian. Aurrean gitarra eta baxujolea, atzean berriz, bateria eta abeslariarentzako taulatxoak. Banaketa horren arrazoia akustikoa dela esan ohi du abeslariak. Estasia abeslaria agertu zenean gertatu zen. Maynard James Keenan bere txoko partikularrean agertu zen praka bakero estuak, bota kanperoak eta bularra agerian zuela. Buruan puntadun oilar gandor tente batekin cowboyaren txapela eskuan zuela bere mugimendu bereziak egiten zituen amerikar rodeo erara. Hortik aurrera gertatu zena esperientzia mistiko bezala izenda daiteke. Gehien txunditu ninduen bateriaren maisutasuna izan zen. 10.000 traste dituen bateria horren erraz menperatzeak harridura sortzen baitu. Ez du inongo arazorik abesti erdian makila bat besapean sartu, zokor-mazoa hartu eta bizkarrean duen gong erraldoiari zartakoa emateko. Horrela, ba, zale itsuen pozaldian murgildurik bukatu zuten gau liluragarri hura erremintaren lagunek.



SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Esthetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



Arkupe

*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ZINE FORUM

Ekainak 15, osteguna, gaueko 10:15ean

buenas noches, y buena suerte

Zuzendaria: George Clooney **Aktoreak:** David Strathairn, George Clooney, Robert Downey Jr., Patricia Clarkson

Ameriketako Estatu Batuak 1950eko hamarkadaren erdialdera. Komunista izatea leporatzen dioten soldadu bat epairik gabe Armadatik bota dute. Telebistako aurkezle esangura-tsua den Edward Murrowek albiste bere telebista saioan jasoko du. Horrek komunisten aurkako gurutza bultzatu duen McCarthy senataria sutan jarriko du eta telebistako esatariaren aurka altxatuko da. Murrow ez da, ordea, kikilduko, eta senatariaren gurutza salatzeaz gain, adierazpen askatasunaren defentsa sutua egingo du bere telebista saioan.

Ez da asko aldatu amerikar gizartea mende erdi hone-tan. 1950eko McCarthyren urteetan bezala, Bushen gobernu militarista ultraeskuindarrak bere gurutza pro-pioa jarri du abian. Komunismoa jada ahaztuta, nazioar-



teko terrorismoa dago Bushen miran. Horretaz gain, giza eskubideen zapalkuntza ere nabaria da Ameriketako Estatu Batuetan. Egoera jasanezin honetan, pentsamendu liberala duten politikari, gizarte eragile eta artistengan jarri du Munduak bere itxaropena eta horietako bat da George Clooney. Zinema arma gisa erabili du aktore eta zuzendari honek: Buenas noches, y buena suerte eta Syriana pelikulekin, Estatu Batuetako kontserbadoreak sutan jarri ditu eta jada traidoretzat jotzen dute.

Askatasunaren aldeko alegatua izateaz gain, kazetarien lanari eta bereziki bere aita Nick Clooney kazetari-ri egiten dion omenaldia ere bada film hau. Zuri-beltzean filmatuta eta aktore talde ezin hobe batez baliatuz, urteko pelikula onenetakoa egin du George Clooneyk.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

agenda

IRTEERAK

Kulturala: ekainak 10 eta 24
Trekkinga, Deba- Zumaia:
ekainak 11

Naturalista: ekainak 4 eta 18
Geologikoa: ekainak 24

TXANGO

Ekainak 3: IRATIKO BASOA -
OTSAGABIA

TURISMO BULEGOA: 943-
143396

INGURUMEN ASTEA

06/06/10-06/06/18

Argazki rallya: ekainaren 2tik 4ra.

Sari banaketa: ekainaren 23an,
19:00etan, argazkiaren
proiektzioaren jarraian.

Zumaia garbia: marrazki
lehiaketa eskolatan. Marrazki
onenekin erakusketa kultur
etxean.

Erakusketa:

5etik 18ra, Algorri Interpretazio
Zentroan, "Bizkaiko Golkoko
Zetazeoak"

Erakusketa eta proiektzioak:

"Zer ikusi, hura ikasi" proiektzioa
eta argazki erakusketa.
Alondegi txikian. 17an eta
18an, 12:00etatik 13:30era eta
18:00etatik 20:00etara.

ASTEKO EGITARAU

Larunbata, 10

9:00etan, "Bisita Ekocenterrera".
Urola Kostako Udal Elkarteak
antolatuta, Emaus
Fundazioaren egitasmoa
bisitatzea.

10:00etan, Txinparta Euskara
Taldea eta Natur Taldeak
Udalaren babesean antolatuta,
irteera: herriko zuhaitzak
Euskaraz izendatzera. Irteera
Amaiaiko plazan.

Astelehena, 12

19:00etan, Algorri Interpretazio
Zentroan:

"Urola Bailarako Landareak"
liburuaren aurkezpena

Asteazkena, 14

19:00etan, Algorri Interpretazio
Zentroan:

Hitzaldia: "Bizkaiko Golkoko
Zetazeoak"

Ostirala, 16

Geologia Kongresua Zumaian.
Mundu osoko adituak biltzen
dituen kongresua gure herrira
etorriko da, Interpretazio
Zentroa ezagutu eta
Itsaslabarra bisitatzea.

Larunbata, 17

18:00etan, Beheko plazan.
Haurrentzat, Ingurumen
Antzerkia: "Karrakela"

EKAINA

Larunbata, 10

16:00etan, Zumaia-Sakoneta-
Zumaia, piragua ibilaldia.

20:00etan, Landarbaso
abesbatzaren kontzertua,
Kutxaren babesean.

Osteguna, 15

22:15ean, zine forum saioa:
"Buenas noches y buena
suerte".

Ostirala, 16

20:00etan, frontoi txikian,
Ludotekako ikasturte
amaierako festa.

22:00etan, Aita Marin, "Zapaldu
Marra" antzezlan.

Larunbata, 17

9:00etan hasita, Eusebio
Gurrutxaga plaza eta Erriberan,
"Euskara Kiroltasunez" festa.

12:00etan, "Zumaiaiko Pintxoak":
pintxo kalejira, eta 13:30ean
kofradian, Pintxo Lehiaketa.

18:00etan, plazan, Hegaluz
dastatzea

Osteguna, 22

ZUMAIA LORETAN 2006
(oinarriak eta izenematea
Turismo Bulegoan)

Ostirala, 23

15:00etatik aurrera, Kiroldegiko
igerilekuan, Puzgarriak.

22:00etan, San Juan Iturrian,
San Juan Suak.

Larunbata, 24

16:00etan, Kirol Portuan, Cycling
Maratoia

23:00etan, Itzurun hondartza
gainean, Rock Kontzertua:
Musika Eskolako ikasturte
amaierako kontzertua.

Igandea, 25

11:00etan hasita, Zumaia XIV.

Artisau Azoka

Asteazkena, 28

19:00etan, ZUMAIA SARIAK
2006: Kirol sarien banaketa

28-29: SAN PEDROAK

Ostirala, 30

19:00etan, ZUMAIA SARIAK
2006: Kultur eta Gizarte sariak.

22:00etan, Herri mailako Pilota



Zumaiaiko III Triatloia

Zumaiaiko Triatloi Taldeak antolatu du aurten ere
triatloia. Partaideek 1,5 kilometro igeri, 45 kilometro
bizikletaz eta 10 kilometro saltaka egin beharko dituzte.
15:30ean hasiko da.

txapelketaren Azken Partiduak:
Eskuz eta Palaz.

19:30ean, Mariatxi taldearen
kalejira.

23:00etan, Eusebio Gurrutxaga
plazan "MÉXICO LINDO":
mariatxi eta dantza ikuskizuna.

2, igandea

11:00etan, Alai auzategian,
Gipuzkoako Txapelketaren
barne, Ardi Txakur Froga.
8tik 10era, NARRONDO AUZOKO
JAIK.

UZTAILA

1, larunbata

8:00etatik 23:00etara, Uxategian,
Scalextric froga,
SCALEXTRICen 44. Urtemuga:
12 orduko iraupen froga,
argazki rallya, eta festa
egunean zehar

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko
baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe
eta profesionalak egitea

ZUMAI

Basadi, 12 beheha Tel. 943 861018



**taberna
JUSTA**

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

AUTO ESCUELA ZUMAIÀ

- ❶ gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- ❷ praktika eta azterketak Azpeitian
- ❸ gure helburua:
gidari trebe eta profesionalak egitea

BASADI, 12 BEHEA

TEL. 943 86 10 18



"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazioa

FISIOTERAPIA

Maider Olazabal

KIROL MEDIKUNTZA

Manu Glez. Aramendi

KIRURGIA OROKORRA LISERI-APARATOA

Juan Ignacio Alberdi

PODOLOGIA

Ione Aguirregomezkorta

Aita Mari poligonoa, 3, blokea
Tel. 943 86 16 91
Zumaià